

KONTRATAZIOA	
DATU PERTSONALAK BABESTEARI BURUZKO INFORMAZIOA	
Arduraduna	<p>Nor arduratuko da zure datuak tratatzeaz?</p> <p>EJIE SA IFK: A01022664 Posta-helbidea: Mediterraneoaren hiribidea 14, 01010 Vitoria-Gasteiz, Araba Telefono-zenbakia: 945 017 300 Helbide elektronikoa: ejie@ejie.eus Datuak Babesteko Ordezkariekin harremana izateko, idatzi helbide honetara: dpo@ejie.eus</p>
Helburua	<p>Zertarako tratatzen ditugu zure datuak?</p> <p>EJIE SAK honako helburuetarako tratatzen ditu jendeak emandako datuak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Hornitzaile izateko hautagai diren enpresetako langileen inguruko informazio pertsonala kudeatzeko, kontratazioari buruzko barne jarraibideen eta lizitazio-prozesuaren arabera. • Aurreko prozesuari lotutako komunikazioak, jakinarazpenak eta gorabeherak bideratzeko. • EJIEren web-atarian kontratatzailearen profilaren iragarkietan harpidetza egin edo desegin duten pertsona fisikoei buruzko informazio pertsonala kudeatzeko.
Legitimazioa	<p>Zerk legitimatzen du zure datuak tratatzea?</p> <p>Hona hemen datuak tratatzeko lege-oinarriak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • DBEO: 6.1.e) Interes publikoaren izenean edo Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen arabera tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoen izenean egindako eginkizun bat betetzea. • DBEO: 6.1.a) Interesdunak baimena eman zuen bere datu pertsonalak tratatzeko Kontratatzailearen Profilean iragarkiak harpidetzeko.
Hartzaileak	<p>Zein hartzailei jakinaraziko dizkiogu zure datuak?</p> <ul style="list-style-type: none"> • Eusko Jauraritzari, eta kontratazio-prozesuetan parte hartzen duten beste administrazio publiko batzuei. • Kontratatzailearen Profilean iragarkiak jartzeko inongo daturik ez zaie emango hirugarrenei.

	<ul style="list-style-type: none"> • Datuak kudeatzeak ez du esan nahi datu horiek nazioartean transferituko direnik.
<p>Datuak gordetzea</p>	<p>Zenbat denboran gordeko ditugu zure datuak?</p> <ul style="list-style-type: none"> • 10 urtean gordeko ditugu kontratazio-prozesuan tratatuko ditugun datu pertsonalak. • Kontratatzailearen profilean iragarkiak harpidetzen tratatzen diren datu pertsonalak datuok eman dituenak harpidetzari baja emateko eskatu artean gordeko ditugu.
<p>Eskubideak</p>	<p>Zein eskubide dituzu guri datuak eman ostean?</p> <ul style="list-style-type: none"> • Edozeinek dauka eskubidea ziur jakiteko EJIE S.A. bere datu pertsonalak tratatzen ari ote den. • Emandako baimena edozein garaitan ezezteko eskubidea dute interesdunek. • Pertsona interesdunek eskubidea dute beren datu pertsonalak eskuratzeko, bai eta zehatzak ez diren datuak zuzen daitezela eskatzeko ere, edo, hala badagokio, datuak ezabatu daitezela eskatzeko, besteak beste datu horiek dagoeneko ez badira beharrezkoak jaso ziren helburuetarako. • Kasu jakin batzuetan, pertsona interesdunek aukera dute beren datuen tratamendua muga dadila eskatzeko. Mugatzea eskatuz gero, erreklamazioak egin edo erreklamazioen aurrean babesteko soilik gordeko ditugu. • Kasu jakin batzuetan, eta pertsona interesdunen egoera bereziren batekin lotutako arrazoen ondorioz, interesdunek aukeran izango dute beren datuak tratatzerik ez dutela nahi adierazteko. Hala eginez gero, EJIE S.A.k datu horiek tratatzeari utziko dio, nahitaezko legezko arrazoiren bategatik ez bada, edo erreklamazioen bat gauzatzeko edo erreklamazioen aurrean defendatzeko ez bada. • Interesdunek EJIE S.A.ri eman dizkieten datuak beste norabait eramateko moduan jartzeko eskatzerik badute, edonork erabiltzeko moduko eta mekanikoki irakurtzeko moduko formatu egituratu batean, haiek deskargatzeko edo EJIE S.A. tik beste erakunde batera bidaltzeko. • Eskubideak gauzatzeko, bidali mezu bathonako helbide honetara, NANaren kopia bat edo nortasuna egiaztatzeko beste agiri baliokideren bat ere gehituta: lopd-ejie@ejie.eus

	<ul style="list-style-type: none">• Gainera, eskubideak zuk nahi bezala baliatzerik ez baduzu izan, aukera izango duzu erreklamazio bat aurkezteko Datuak Babesteko Agentzian, batik bat, www.aepd.es orrialdean adierazitako posta-helbidearen edo helbide elektronikoaren bidez.
SEGURTASUNA	<ul style="list-style-type: none">• Datuak konfidentziasunez tratatuko ditugu, eta antolaketa-neurri tekniko egokiak baliatuko ditugu datuok tratatzeko, ez daitezzen aldatu, galdu edo beste nolabait tratatu eta inork ez ditzan baimenik gabe eskuratu.